



Azpeitiko Udala

AZPEITIKO UDALAREN ETA KULTURZALE KULTUR ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, SOREASUKO SORMEN GUNeko -DINAMOAN- 2020KO URTEAN ZEHAR EGINGO DIREN SORMEN ETA KOMUNIKAZIO PROGRAMAK, EKINTZAK ETA AKTIBITATEAK JASO DITUEN EGITASMOA BIDERATZEKO (41D).

-Dirulaguntza izenduna bideratzeko hitzarmena-

Azpeitian, 2020ko abenduaren 9an

BILDURIK

Alde batetik **NAGORE ALKORTA ELORZA**, NAN 72.471.832-M duena, Azpeitiko Udalaren Alkate-Udalburua, Udalbatza Osoak 2019ko ekainaren 13-an hartutako erabakiaren arabera egintza honetan parte hartzeko ahalmena hartua.

Bestetik **OLATZ PRAT AIZPURU**, NAN 72.461.411-A duena, Kulturzale Kultur elkartearen Lehendakaria, erakundearen organo gorenak 2018ko otsailaren 21ean hartutako erabakiaren arabera egintza honetan parte hartzeko ahalmena hartua.

Bi aldeek aitortzen diote elkarri agiri hau izenpetzeko eta jarduteko behar den gaitasun juridikoa eta honakoak azaltzen dituzte:

AURREKARIAK

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak ez ezik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua ere Azpeitiko Udalerri kultura eta kultura-jarduerak antolatzeke eta sustatzeko eskumen propioa aitortzen dio. Kultura garatzeko, sustatzeko eta zabaltzeko Udalak helburu, estrategia eta ekintzak definituko ditu, eta horien kudeaketan bere bitartekoak erabiltzeaz gain beste erakunde batzuekin ere elkarlanean aritu ahal izango da, modu koordinatu eta homogeneousan.

Udalbatzak 2020ko maiatzaren 5ean onartu zuen 2020-2022 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa, eta bertan jaso zituen diru-laguntzak emateko ildo estrategikoak. Horien artean dago III. Eranskina: kulturaren arloko jarduerak dinamizatzea eta sustatzea, eta honen barruan Dinamoa Kultura-sorkuntzarako espazioan proiektu sortzaileak dinamizatzen laguntzeko laguntza programa.

Diru-laguntza lerro honen helburu estrategikoa Udalerri dinamikoa, abangoardista eta kulturalki aktibo bat lortzea da, artista berriak eta haien lanak sustatzeko eta kultur komunikazioa indartzeko; halaber artistei udal espazioen erabilera erraztea nahi da, hauek bere ekimenak bideratzeko. Horretarako, 2020. ekitaldi honetan, Kulturzale Kultur Elkartearen bidez tokiko artisten proiektuak lagundu nahi dira honako diziplina hauetan: musika, pintura, eskultura, obra literarioa, antzerki-lana, obra zinematografikoa, komikia, soinu-konposizioa, ikus-entzunezko konposizioa, konposizio digitala, dantza etab...

Kulturzale Kultur Elkartek (G20991006) 2020ko apirilaren 22an Soreasuko Sormen Guneko -DINAMOAN- 2020ko urtean zehar egingo diren sormen eta komunikazio programak,

ekintzak eta aktibitateak jaso dituen egitasmoa aurkeztu zion Udalari, eta horiek bideratzeko diru-laguntza eskaera egin zuen. Egitasmoaren baitan jaso diren proiektuak sormen guneko honako eremuetan barneratzen dira: Hitzaren eremua: Hitzaren eskola egitasmoa; Irudiaren eremua: Irudika egitasmoa; Gorputzaren eremua: Oholtzaberri proiektua eta Soinuaren eremua: Errati proiektua. Eskaerarekin batera dagokion aurrekontua ere aurkeztu da. Guztira 216.648 €ko aurrekontua.

Udalaren Kultura, Euskara eta Parte hartze batzordeak 2020ko maiatzaren 28an egindako bileran Kulturzale kultur elkarteak aurkeztutako egitasmoa baloratu zuen, eta aldeko aldeko irizpena eman zuen aurrekontuan jasotako diru-laguntza zuzena eta izenduna ematerako, bat datorrelako Azpeitiko Udalak kulturaren arloko jarduerak dinamizatzeko eta sustatzeko helburuarekin.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arabera, toki-administrazioa osatzen duten erakundeek pertsona publiko edo pribatuen alde egindako diruzko xedapen oro da diru-laguntza, baldin eta baldintza hauek betetzen baditu: diru-laguntza onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematea, helburu jakin bat bete behar izatea, jarduera bat egitea, eta onuradunak ezarritako betebeharrak materialak eta formalak betetzea. Finantzatutako jokabidearen edo egoeraren helburua onura publikoko jarduera bat sustatzea edo helburu bat sustatzea izatea. Azpeitiko Diru-laguntzak emateko udal-agintarauak, bere aldetik, laguntzak emateko edukia eta prozedurak zehazten ditu (GAOn 2012ko maiatzaren 29an argitaratua).

Era berean, diru-laguntza aurreikusita dago Udalaren 2020ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorraren Betearazpen Oinarrietan eta 2020-2022 Plan Estrategikoan.

AZPEITIKO KULTURZALE KULTUR ELKARTEAK eskaerarekin batera egiaztatu du Kultura Departamentuan laguntzaren onuradun izateko legezko baldintza guztiak bete dituela.

Horiek horrela, parte-hartzaileek, duten ordezkaritzaaren arabera, bere burua lotzeko gaitasuna dute eta hori aitortzen diote elkarri; hortaz, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 28. artikulua kontuan izanik, hurrengo lankidetzak-hitzarmena gauzatzeko, hauek erabaki dituzte:

1. HELBURUA.

Hitzarmenaren helburua da Kulturzale Kultur elkarteari 60.000 €ko laguntza izenduna ematea, Soreasuko Sormen Guneko -DINAMOAN- 2020ko urtean zehar egingo diren sormen eta komunikazio programak, ekintzak eta aktibitateak jaso dituen egitasmoa exekutatzeke aurkeztu zion Udalari "Dinamoa Sormen Guneko programa"

Egitasmoa hitzarmenaren **Eranskin** bezala jaso da. Bertan zehaztu dira aurtengo ekitaldian emango diren jarduketak.

Diruz lagundutako jarduera egiteko epea 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoa izango da.

2.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Egitasmoak guztira 216.648 €ko aurrekontua izango du eta finantzabide ezberdinak



Azpeitiko Udala

izango ditu, Azpeitiko udalaren laguntza barne. Udalak aurrekontu hori onartu egiten du.

Diruz-lagun daitekeen gastutzat hartuko dira egitasmoa bideratzeko erabiltzen diren gastuak, aurkeztutako aurrekontuaren arabera.

3.- AZPEITIKO UDALAREN BETEBEHARRA

Azpeitiko udalak hitzarmen honetan jaso den 60.000 €ko laguntza gauzatuko du 2020ko Udalaren aurrekontuan jaso den 1.0401.481.334.00.06 2020 Sorkuntza eta komunikaziua aurrekontu kredituaren bidez.

4.- ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Kulturzale Kultur Elkartek bere gain hartzen du:

- Azpeitiko Udalak ekarritako funtsak hitzarmenaren bidez onartu den egitasmoa bideratzea.
- Emandako laguntza behar bezala justifikatzea Udalaren aurrean.
- Emandako laguntzaren emaitzak Udalaren Kultura Batzordean azaltzea.

5.- ORDAINKETAREN BALDINTZAK:

Onuraduna izateko baldintzak: Laguntzaren onuraduna izango den Kulturzale Kultur Elkartek indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintzak bete ditu.

Ordainketa aurreratua: Kopuru osoaren ordainketa aurreratua egingo da, dirulaguntzaren helburu diren jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa delako.

Laguntzaren onuradunak ez du bermerik eratu beharrik, lukrorik gabeko erakunde bat delako eta bere helburua kultura alorrean herriaren garapena duelako helburu.

Laguntzaren bateragarritasuna: Diruzko ekarpena bateragarria da helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administratibotatik edo erakunde publiko edo pribatutatik badatoz. Edozein kasutan, laguntza guztiak ezingo dute jardueraren kostua gainditu.

Kulturzale Kultur Elkartek diru-laguntzen ikuskapenari, jarraipenari eta kontrolari buruzko araudia bete behar du, eta Udalaren diru-laguntzak kudeatzen dituzten organoek eskatutako informazio guztia eman.

Kulturzale Kultur Elkarteari diru-laguntza itzultzeko eskatuko zaio -diru-laguntza ordaintzen den unetik dagokion berandutze-interesarekin-, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikulutik 43.era bitartean aurreikusitako kasuetan eta baldintzetan.

6.- DIRU-LAGUNTZAK JUSTIFIKATZEKO ARAUBIDEA.

Diru-laguntza emateko egintzan ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako

helburuak lortu direla justifikatu beharko du Kulturzale Kultur Elkarteak, Udalaren Kultura Sailaren aurrean.

Diruz lagundutako jarduera egiteko emandako epea amaitu eta gehienez ere **hilabeteko epean** aurkeztu beharko da justifikazioa. Justifikatzeko epea amaituta justifikaziorik aurkeztu ez bada edo nahikoa ez bada, justifikatzeko betebeharra ez dela bete ulertuko da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

Justifikazio-kontu sinplifikatuak diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko **jarduketa-memoria** bat izango du, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita, bai eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 75.2 artikuluko b) eta c) eta, hala badagokio, d) letretan xedatutako dokumentuak ere.

Diru-laguntza ematen duen organoak egoki iritzitako egiaztagiriak eskatuko dizkio onuradunari, diru-laguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko.

7.- PARTEHARTZE EGITASMOAREN ETA JARDUKETEN JARRAIPENA ETA KONTROLA -UDALAREN KULTURA ALORREKO BATZORDEA-

Ekarpenak eskatzen dituen justifikazio baldintzak betetzearen kalterik gabe, hitzarmenaren helburu den ekimenen jarraipena eta kontrola lankidetzaren honetan aipatu diren erakundearen zeregina izango da.

Horretarako, Elkarteak 2021eko lehen hilabetearen -justifikatzeko epealdian- egitasmoaren exekuzioaren berri emango du Udaleko Kultura batzordean, honako gutxienezko zehaztasun hauekin:

- Egitasmoan jaso diren eta diruz lagundu diren proiektuen bilakaera (talde partehartzaileak eta gizon emakumeen parte hartze maila).
- Herritarren parte-hartze maila.
- Sormen artistikoaren maila eta ondorioak.

8. ARAUBIDE JURIDIKOA.

Diru-laguntza hau, hitzarmenaren honetan xedatutakoaz gain, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Legearen Erregelamenduan xedatutakoaren arabera arautuko da.

Hitzarmen hau Azpeitiko Udalaren Diru-laguntza Planaren baitan dago. Bere izaera diru-laguntza izenduna da, bere helburua kulturaren arloko jarduerak dinamizatzea eta sustatzea da, herritarrei irekitako parte-hartze prozesuak garatzen lagunduz.

Lankidetzaren hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta juridikoki Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 4.1.d) artikuluan dago sartua, eta beraz, haren aplikazio zuzenetik kanpo dago.

Ondorioz, Lankidetzaren hitzarmenaren honen indarraldian sor daitezkeen auziak



Azpeitiko Udala

Administrazioko auzi-gaietarako jurisdikzioak erabakiko ditu.

9.- PUBLIZITATEA

Laguntzaren onuradunak publikatzen dituen liburuxka, kartel eta gainontzeko dokumentazioan eta materialean Udalaren laguntzaren berri emango du, Udalaren irudi-instituzionalarekin.

Bere aldetik Diru-laguntza hau Udalaren web orrian argitaratuko da, eta baita Estatuko diru-laguntzen datu basean ere.

Eta aurretik adierazitako guztiarekin duten adostasunaren seinale gisa, agiri hau bi aldeek izenpetzen dute, idazpuruan ageri diren tokian eta egunean.

-0-

AZPEITIKO UDALAREN ALKATEA



Nagore Alkorta Elorza

**KULTURZALE KULKUR
ELKARTEAREN LEHENDAKARIA**

Olatz Prat Aizpuru

